2008-III-28
Número **239.** zenbakia

ELA

www.ela-sindikatua.org

astekaria

# EDITORIALA

## Eraberrituz

Azken hamarkadan gure erakundean aldaketa sakonak eman ditugula gauza jakina da, are eta gehiago jenero eta adinagatiko ikuspegiei errepa-ratzen badiegu. Gizartean eta lan merkatuan epealdi horretan ematen ari zen sakoneko aldaketari egokitzen saiakera berezia egin du sindikatuak. Egokitzapen horren ondorioetako bat, besteen artean, zuzendaritza batzorde ezberdinetan izandako gaztetze prozesua eta emakumeen presentzia areagotzea izan da. Prozesua ez da bat-bateko burutapen baten ostekoa izan, ez eta norbaiti otu zaion itxurazko irudi bat eman beharrekoaren ondorengoa.

Erabakitako politika honen adibide argienetakoa da Nazio Batzordean berriki eman den aldaketa. Lau pertsona irten, beste hainbestek ardura berria hartu eta bederatziek funtzioak aldatzen dituzte. Kongresua dagokigun urtea izanik ez da txantxetako aldaketa. Orokorrean, beterik legoke jenero eta adinagatiko berritzearen ibilbidea. Zentzu horretan, ELAren ziklo historiko bati itxiera ematen zaio nazio batzordean, laurogeita zortzian zuzendaritzan zeudenetatik ez baita inor geratuko aurten.

Eraberritze garrantzitsua izanik, ez legoke horrelakoa burutzerik baldin eta oinarri sendoak ez baleude gure erakundean. Funtsezko bi zutoinetan ulertu behar da prozesu hau: batetik, belaunaldi bateko baliozko pertsonen konpromisoa, organizazioaren beharrak lehenetsiaz, bere sakrifizioa hortxe dagoelarik; eta bestetik, ibilbide luzerik gabeko militanteen erronka erakunde guztiaren apustutzat hartzea. Bi zutoinak biltzen duen barne kohesioa berebiziko altxorra dugu gurean eta ezinbestez zaindu beharra dugu, azken finean gure egiteko moduaren adierazgarri da, gure kulturaren adierazgarri.

Aurrez izan direnak eta oraingoak izatea posible egin dutenak ederki asko erakutsi digute, aitzindari izanik, gure proiektuak duen indarraren balioa. Belaunaldi berria, dagokion txanda harturik, ahalegin horretan ere saiatzen ari da, konpromiso horrek ez baitu onartzen ez etenik ez eta atsedenik.



**El Informe de Coyuntura de ELA destaca que los trabajadores y trabajadoras no se ven beneficiados del crecimiento económico**

# 2007, MAL AÑO PARA LA CLASE TRABAJADORA

**El último Informe de Coyuntura elaborado por el gabinete de estudios de ELA demuestra cómo, a pesar del crecimiento económico registrado, la valoración del año 2007 resulta negativa para la clase trabajadora. Este es un resumen del informe; el informe íntegro se puede leer en la página web de ELA.**




### 1. DECIMOCUARTO AÑO CONSECUTIVO DE CRECIMIENTO ECONÓMICO

El año 2007 se ha consolidado como un nuevo año de crecimiento económico. Con éste, ya son catorce los años consecutivos de crecimiento en Hego Euskal Herria. Así, el Producto Interior Bruto (PIB) en la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha registrado en el año 2007 un crecimiento de 3,9%. El PIB de Navarra ha finalizado el año con un crecimiento de 3,8%. No obstante, este crecimiento del año 2007 ha sido menor que el registrado en ejercicios anteriores. En la CAPV el PIB del año 2006 creció el 4,2%, y en Navarra el 3,9%. En nuestro entorno, el año 2007 también se ha cerrado como un año de crecimiento económico. En concreto, el PIB del año 2007 en el Estado español creció un 3,8% y en la UE-27 un 2,9%.

### 2. INDICADORES NEGATIVOS DEL EMPLEO

**• Se ha creado poco empleo**

El crecimiento económico del año 2007 no ha tenido una repercusión positiva en la creación de empleo. De

*Langileriarentzat kaltegarriak diren zutabeek eusten diote ekonomiaren hazkundeari*

→

**ELAk begi-onez ikusten du Guardian Llodion lortutako aurre-akordioa**

# “LAN BERAGATIK, SOLDATA BERA”

**ELAk irakurketa baikorra egiten du Guardian Llodion lortutako aurre-akordioaren inguruan. Hala ere, ELAk soilik sustengatuko du aurre-akordioa baldin eta langileen asanbladak baiezkoa ematen badio. Aurre-akordioak 5.000 euro arteko soldata igoera linealak jasotzen ditu 2008. urterako; 2009. urterako soldata igoera KPI+0,75ekoa izango da; 2010erako KPI+1; azkenik, 2011. urterako KPI+1,5 eta 700 eurotako igoera lineala.**

Lanaldiaren murrizketa 40 ordukoa izango da 2008. urtean, eta 18koa 2010ean. Bestalde, langile guztiei urteko irabazi gordinaren %1,5eko paga zabalduko zaie; honek 450 euro suposatzen ditu. Gainera, distantzia plusa ere ordainduko da, besteak beste. Hobekuntza hauek kontratazio berriek pairatzen zuten soldata eta lanaldi diskriminazioa gutxitzea ahalbideratuko dute.

Akordioak ere beste hainbat puntu baikor jasotzen ditu. Esaterako, egun txandakatze sisteman lan egiten duten langile guztiak langile finkoak izango dira etorkizunean. Aurten Aldi Baterako Lanaldi Enpresen bidez kontratatutako 90 langile Guardian Llodiok kontratatuko ditu.

ELA-Hainbatek Ibaizabal-Nerbioien duen ordezkari Aitor Garrigak nabarmentzen duenez “Guardianek langileen eskubide kolektibo eta indibidualen inguruan daraman politika oso oldarkorra da. Langile askok kontratu, soldata edo gizarte eskubide ezberdinak zituzten, enpresan sartu ziren dataren edo zuten kontratu motaren arabera. Aurre-akordioa egindako greben eta mobilizazioen ondorio da. Gatazka honetatik badago zer ikasia. Beti esaten dugu 'lan beragatik soldata bera' leloa. Horrelako akordioek helburu hori lortzeko balio handia dute”.

*El preacuerdo alcanzado en Guardian Llodio es positivo; permite reducir la discriminacion salarial y de jornada que sufrían las nuevas contrataciones*




esta forma, la población ocupada apenas ha aumentado respecto del año anterior. En concreto, el número de personas que tenían trabajo en el año 2007 fueron 1.282.300, apenas 8.800 personas más que en el año 2006 (un 0,7% más).

La explicación a la reducción de la tasa de paro (del 6,3% en el cuarto trimestre de 2006 al 5,4% de 2007) se encuentra principalmente en el descenso de la población activa. En concreto, la tasa de actividad se ha reducido en medio punto respecto del año 2006. Así, en el cuarto trimestre del año 2007 el porcentaje de la población que tenía un empleo o buscaba tenerlo era del 73,5% frente al 74% del año 2006.

**• El 90,7% de los contratos registrados siguen siendo temporales**

Esta cifra supone un incremento respecto de los datos registrados en 2006, puesto que en ese año el porcentaje de contratos temporales fue de 90,2%. En concreto, en el ejercicio 2007 se han firmado 1.121.729 contratos de trabajo, de los que 1.017.096 han sido temporales (el 90,7%). Si analizamos la tipología de los contratos temporales, vemos que el más habitual ha sido el contrato eventual por circunstancias de la producción (39,1%), seguido del contrato por obra o servicio (32,5%); les sigue de lejos el contrato de interinidad (17,2%), y ya, con un peso casi nulo el contrato en prácticas (0,8%), el contrato de relevo (0,6%), el contrato de jubilación parcial (0,5%), otro tipo de contratos (0,3%), el contrato temporal de minusválidos (0,1%), y el contrato de sustitución por jubilación a los 64 años, con un peso residual.

Al analizar los contratos temporales de los hombres, observamos que el porcentaje es ligeramente inferior a la media (89,8%). El contrato temporal más habitual pasa a ser el contrato por obra o servicio (39,9%) en el caso de los hombres, al que le sigue el contrato eventual por circunstancias de la producción (39,4%); en este caso el contrato de interinidad tiene un peso considerablemente inferior (7,7%).

En el caso de las mujeres, el porcentaje de contratos temporales supera levemente la media (91,4%); la modalidad más utilizada es el contrato eventual por circunstancias de la producción (39%), seguido en este caso del contrato de interinidad (que, con un 26,2% sobre el total, pasa a tener una presencia mucho mayor), y del contrato por obra o servicio (24,4%).

Únicamente 104.633 de la totalidad de los contratos registrados, es decir el 9,3%, han sido indefinidos. Estas cifras esconden un enorme fraude en la contratación. La conclusión que se alcanza es que las últimas reformas laborales han sido totalmente ineficaces a la hora de aumentar la contratación indefinida. Es más, el porcentaje de contratos indefinidos del año 2007 es inferior al del 2006 (9,3% frente a 9,8%). Estos datos implican la necesidad de abordar otro tipo de iniciativas dirigidas en otra dirección, como, por ejemplo, inspecciones laborales que sancionen en su justa medida las contrataciones temporales que no tengan justificada su causa.

**• La temporalidad es estructural**

La altísima temporalidad sigue siendo uno de los grandes problemas del mercado de trabajo. En el cuarto trimestre del año 2007, la tasa de temporalidad se situó en el 28,2% frente al 14,8% de la media de la UE-27. Los discursos de las organizaciones firmantes de las reformas laborales (CCOO, UGT, CEOE y el Gobierno del Estado español) hablan de la temporalidad como un fenómeno preocupante. Sin embargo, los datos demuestran que, pese a lo que dicen, la reducción de la temporalidad no es el objeto que se persigue con esas reformas.

**• Diferencias de género**

En la totalidad de datos y ratios que se obtienen de la Encuesta de Población Activa (EPA) se observa claramente que las mujeres siguen padeciendo unas peores condiciones en el mercado laboral. Las cifras registradas en la tasa de actividad y en la tasa de paro constatan la discriminación que padecen las mujeres. A esto hay que sumarle lo referente a la temporalidad, tal y como hemos visto en el apartado anterior. Así, mientras que la tasa de actividad masculina del cuarto trimestre de 2007 fue de 82%, la tasa femenina apenas llegó al 64,8%. Algo similar sucede con la tasa de paro, dónde la tasa femenina alcanza el 7%, frente al 4,2% de la masculina.

**• Siniestralidad laboral: cifras inaceptables**

Según las fuentes oficiales de información, en el ejercicio 2007 se produjeron 62.039 accidentes de trabajo con baja, 3.457 menos que el ejercicio anterior. Sin embargo, según contabilidad propia del Gabinete de Salud Laboral de ELA, el número de personas fallecidas en accidentes de trabajo fue de 106, lo que supone un aumento respecto de la del año anterior (103 fallecimientos).

La Ley de Prevención de Riesgos Laborales se ha mostrado como un elemento totalmente ineficaz para abordar este problema. Se siguen anteponiendo los beneficios empresariales a la seguridad y salud de las trabajadoras y trabajadores. La alta temporalidad y subcontratación, unidas a los altos ritmos de trabajo y la falta de inversión en seguridad y salud laboral son las principales causas de este fenómeno.

El año 2007 supone una nueva constatación de la desidia de las administraciones y de las organizaciones empresariales a la hora de llevar a cabo medidas que consigan atajar este problema. Mientras tanto, más de un centenar de trabajadoras y trabajadores de Hego Euskal Herria perdieron su vida trabajando.

**• Aumento de la regulación de empleo en un 28%**

El año 2007 ha registrado un incremento de la regulación de empleo. Así, mientras en el año 2006 las fichas autorizadas fueron 361, en el año 2007 la cifra ascendió hasta 509.

Este aumento ha tenido su repercusión directa en el número de personas afectadas por la regulación de empleo. En concreto, en el año 2007, 8.634 personas se vieron afectadas por la regulación de empleo. Esta cifra supone un incremento de 1.886 personas respecto a 2006.

### 3. LA MAYOR SUBIDA DE PRECIOS DESDE 1995

El año 2007 ha finalizado con el Índice de Precios de Consumo situado en el 4,2%. Ésta es la cifra más alta registrada desde el año 1995. Además, la evolución es muy preocupante puesto que en poco tiempo está subiendo de forma alarmante.

La subida de precios está recayendo sobre los productos básicos como son la leche y el pan. El impacto del IPC sobre los alimentos de primera necesidad hace que los que más acusen esta subida sea la gente con menos recursos, de forma que cada vez ve más mitigado su poder adquisitivo. Es necesario que esta escalada de precios tenga una repercusión en los salarios de la clase trabajadora, ya que de no ser así nuevamente estaremos perdiendo poder adquisitivo, para lo que en negociación colectiva se debe tener en cuenta el IPC del ejercicio anterior.

### 4. 2007: UN MAL AÑO PARA LA CLASE TRABAJADORA

Si se ponen en relación el crecimiento económico expuesto en el primer apartado y los indicadores analizados en el segundo, se observa claramente cómo el crecimiento económico está sustentado en pilares que perjudican a la clase trabajadora. La precarización del empleo no se reduce; la temporalidad duplica a la europea, la siniestralidad sigue arrojando unos datos dramáticos y el número de personas expuestas a las regulaciones de empleo cada vez es mayor.

Si a lo anterior unimos la distribución cada vez más injusta de la riqueza, nos encontramos en una situación en la que un núcleo reducido de gente está haciendo mucho dinero en detrimento de la mayoría de la población Resulta significativo observar cómo en 2007 el crecimiento económico (en torno al 3,5% en Hego Euskal Herria) no ha conllevado apenas creación de empleo. El hecho de que haya habido crecimiento en la economía, sin que el empleo apenas haya aumentado, implica necesariamente que se ha producido un incremento en la productividad. Sin embargo, este incremento de la productividad no se ha traducido en un aumento de los salarios.

Así, y a expensas de confirmación oficial, en el año 2007 las rentas de trabajo han vuelto a perder peso a favor de las rentas empresariales y de capital. Lamentablemente, esta pérdida en la distribución de la riqueza viene a ser constante desde el año 1993.

Este estancamiento de los salarios se ve agravado por el incremento del IPC. Tal y como se desprende del tercer apartado, la subida de precios está afectando principalmente a la gente con menos recursos. En definitiva, resulta evidente afirmar que el año 2007 ha sido un mal año para la clase trabajadora.

*Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da; pertsona gutxi batzuek dirutza itzelak egiten dituzte biztanle gehienen kaltetan*

*Lan-errentek berriro galdu dute pisua, kapital-errenten eta enpresarien errenten alde; 2007a urte txarra izan da langileontzat*

### Nazio Kontseiluaren azken bilerak Nazio Batzordean berrikuntza garrantzitsuak adostu ditu

# URRATS BERRIAK ERABERRITZE BIDEAN





Maite Leizegi



Amagoia Lasagabaster



Pello Igeregi



Iñaki Arrieta

**Martxoaren 27an ELAren Nazio Kontseilua elkartu zen Bilbon. Nazio Kontseiluaren ohiko bilerak Nazio Batzordean berrikuntza garrantzitsu bat burutzea adostu zuen; Batzordeko 36 kidetatik 4 ordezkatu egin dira, eta organoaren baitako beste 9 ardura aldatu egin dira.**

Metaleko federazioan idazkari nagusi berria Unai Martinez izango da; antolakuntza arduraduna, Itziar Larrazabal. Iñaki Arrieta batzorde iraunkorreko kide izango da; horrela, Arrieta Nazio Batzordean sartzen da.

Zerbitzuak federazioan Igor Eizagirre izango da idazkari nagusia eta Mari Cruz Elkoro, berriz, antolakuntza arduraduna.

Gizalan federazioan, Nerea Larrinagak Irakaskuntzako ardura hartuko du.

Deba, Eskumaldea eta Ezkerraldea-Kadaguako eskualde-batzetan idazkari edo arduradun berriak Amagoia Lasagabaster, Pello Igeregi eta Maite Leizegi dira, hurrenez hurren, guztiak ere Nazio Batzordeko kide berriak.

Halaber, lehenago Nazio Batzordean zeuden lau kidek eskualde ardura berriak hartuko dituzte: Aintzane Orbegozo (Donostia), Xabier Perez Herrero (Oarso-Bidasoa), Ramon Irazu (Urola-Kosta) eta Egoitz Iturbe (Oria-Goierri).

Dani Gomez izan da azken lau urteotan ELA-Metaleko idazkari nagusia. Euban 1976an egin zen III Kongresutik hona Nazio Batzordeko kide izan da, eta aurrerantzean Manu Robles-Arangiz fundazioko zuzendari izango da.

Aitor Goenagak eta Patxi Zubizarretak sindikatuaren barnean beste ardura politiko batzuk hartuko dituzte, eta Maribel Maguregi bere lantokira itzuliko da, 10 urtez lan garrantzitsua egin ostean.

Berritze prozesu honen ondoren ELAko Nazio Batzordea 15 emakumek eta 21 gizonezkok osatzen dute. Euretatik hamaseik 35 urte edo gutxiago dituzte; hamabostek, 36 eta 49 urte bitartean; lauk, 50 eta 55 artean, eta batek, 57. Hots, Nazio Batzordeko %40tik gora emakumeak dira eta duela zenbait urte hasitako belaunaldi berrien sarrera errealitate sendoa bilakatu da.

*La renovación generacional emprendida hace algunos años es ya una realidad*

**Duela urte batzuk hartutako erabakiaren ostean, zuzendaritza organoetan berritze prozesua orokorrean beterik dago. Kuotarik gabeko erantzukizunari helduaz, emakume eta gazteen presentzia orekaturik dago Nazio Batzordean, azken urteotako militante berrien inkorporazioak bere emaitzak izan ditu eta. Beste urrats garrantzitsua ELAren bilakaeran, barne sendotasunatik bakarrik uler daitekeena, hain zuzen.**

### La Fundación Manu Roble-Arangiz ha publicado en euskara el trabajo de Eneko Bidegain "Estructura de las instituciones y sistema electoral de Ipar Euskal Herria"

# GUÍA PARA CONOCER MEJOR IPAR EUSKAL HERRIA

**La Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua ha publicado el trabajo de Eneko Bidegain *Estructura de las instituciones y sistema electoral de Ipar Euskal Herria*, en el que el autor expone de forma didáctica y clara la organización del sistema institucional y de poder existente en Iparralde, territorio que no dispone de un reconocimiento institucional propio. Además Bidegain explica cuál es el sistema electoral vigente en los tres territorios de Lapurdi, Nafarroa Beherea y Zuberoa, diferente al existente en Hego Euskal Herria, lo que conlleva también consigo formas diferentes de acción política.**

Esta nueva publicación de la Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua, cuarto documento de la serie *Euskalgintza Sindikalgintzan Txertatu*, recoge la charla *Estructura de las instituciones y sistema electoral de Ipar Euskal Herria* que dio Eneko Bidegain en torno a la organización del sistema institucional y de poder existente en Ipar Euskal Herria.

Eneko Bidegain (Baiona, 1975) además de periodista, (es el responsable de la redacción de Berria en Lapurdi), es autor de varias novelas y ensayos, entre los que cabe destacar el recientemente publicado *Iparretarrak, erakunde político armatu baten historia.*

**El documento íntegro está en formato PDF en la página web de la Fundación: http://www.mrafundazioa.org**



astekaria






**Trenbide Sozialerako Sareak Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan Sailak mugikortasunaren eta salgaien garraioaren inguruan daraman politika salatu du. Trenbide**

## Ingurumen arduradun Janire Dominguezek salgaien garraioaren politika salatzen du

# "AHT-A EZ DA ALTERNATIBA"

**Sozialerako Sareak berriki aurkeztu duen txostenaren arabera Jaurlaritzak arlo honetan daraman politika negargarria da, egungo behar larriei inolako erantzunik ematen ez zaielako. Era honetan, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aldeko apustua onartezina da elkarte hau osatzen duten indar sindikal eta sozialentzat.**

**-Duela gutxi Garraio eta Herri Lan Sailak merkantzien mugikortasunaren inguruko txostena eman du ezagutzera. Zein da zuen iritzia?**

-Gezurra badirudi ere, txosten honetan agertzen diren datuek Jaurlaritzak ezarritako garraio politika negargarria baieztatzen dute. Ez dago politika alternatiboik eta azpiegituren aldeko apustua mantentzen du, ingurumenak eta gizarteak behar dituen neurriak baztertuz. Egoera penagarria izan arren, propagandaren bitartez eztabaida publikoa estaltzea lortzen dute.

Era honetan, ELAren ustez, merkantzien garraio-premiei erantzuteko modurik eraginkorrena oraingo tren sarea hobetzea litzateke, baina Jaurlaritzak egungo trenbidea hiltzen uzteko hautua hartu du. Honekin batera, kostu handiagoa eta arazoari benetako irtenbiderik eskaintzen ez dion alternatibaren aldeko apustua egin du.

**-Beraz, Abiadura Handiko Trena ez da irtenbidea.**

-Begi-bistakoa da Abiadura Handiko Trenak ez duela merkantziak garraiatzeko balio izango. ELAk askotan salatu izan du hori, baina Eusko Jaurlaritzak egin berri duen txostena aztertu eta gero, egitate hori inoiz baino ageriago dago. Eusko Jaurlaritzaren agindUz burututako txostenak dioenez, EAEn, 2006an, 100 milioi tona merkantzia garraiatu ziren errepidez; trenbidez eramandako merkantziak, berriz, ez ziren 5 tonara iritsi. Beraz, trenbideari dagokion portzentajea %5etik beherakoa da, Europar Batasuneko %15eko batez bestekoaren aldean.

AHTak ez ditu konponduko Euskal Herrian merkantzien garraioaren inguruan gaur egun dauden arazoak. Eta aurrera eginez gero, errealitateak frogatuko du esandakoa, lanak amaitu eta gero; konponbiderik ez dagoenean, alegia.

*Los últimos estudios sobre movilidad y transporte de mercancías por ferrocarril confirman la nefasta política de transportes desarrollada por el Gobierno Vasco*

## Labur Breves

### ● Zigor onartezinak Kako baserriaren aferan

ELAren iritzia neurriz kanpokoak dira Kako baserriko afera dela eta Baionan epaitu dituzten sei laborariei ezarri dizkieten isunak. Epaileak fiskalak berak eskaturikoa baina zigor handiagoak ezarri dizkie laborariei. ELAren aburuz ez da zilegia ekintza sindikal xume bat izan zenaren aurka honela oldartzea, eta bere eskubideak defendatzen ari ziren ELBko laborariak hain gogor epaitzea. Elkarretaratze hartan parte hartzeagatik epaituriko sei laborariek ez zuten deliturik egin sindikatu honen iritzia.

### ● El Plan Estratégico de Osalan no aborda los problemas de fondo de la siniestralidad

ELA votó en contra del Plan Estratégico de Seguridad y Salud para los años 2007-2010, al mismo tiempo que criticó la actuación del Departamento de Trabajo en la lucha contra la siniestralidad laboral. Asimismo, en la reunión del Consejo de Osalan celebrada el pasado 14 de marzo ELA denunció la falta de inspección y control de las empresas y la relación directa entre la precariedad y el aumento de la siniestralidad.

Según ELA la patronal incumple sistemáticamente sus obligaciones legales: hay fraude de ley en la contratación, no se invierte en materia de seguridad, se imponen ritmos de trabajo excesivos… En definitiva, la patronal sigue anteponiendo sus beneficios económicos a la seguridad y salud de los trabajadores/as.

Cabe recordar que en la CAPV murieron el año pasado 90 personas en accidentes de trabajo, 12 más que en 2006 y se ha producido un incremento de los accidentes graves.

### ● Bi hilabete greban Lagunduz etxez-etxeko laguntza enpresan

Lagunduz enpresarentzako lanean ari diren etxez-etxeko laguntzako langileak greba mugagabean daude urtarrilak 23tik, enpresako hitzarmen baten aldeko borrokan. Enpresa honek Leioako udalak eskaintzen duen etxez-etxeko laguntza kudeatzen du. Azpikontratazioaren ondorioz langileek pairatzen duten prekaritatearen beste adibide bat dugu gatazka hau.

### ● Bost urte geroago: Gerrari ez, okupazioari ez

Irakeko okupazioa eman zenetik bost urte pasa dira. Eraso honen aurka protestatzeko manifestazioak egin ziren Bilbon, Donostian eta Iruñan martxoaren 15ean, sindikatu eta gizarte mugimendu desberdinek deituta, ELA barne.

Irakeko inbasioak eta okupazioak milioi bat irakiar zibilen heriotza ekarri du. Errefuxiatuak, berriz, askoz gehiago: gutxienez barne desplazatuak 2,5 milioi dira, eta beste 2,2 milioi lagunek inguruko herrialdeetara jo behar izan dute ihesi babes bila. Ameriketako Estatu Batuek Irakiar biztanleriaren genozidio berri bat egiten ari dira, eta giza eskubideak zapaltzen jarraitzen dute.

Irak-eko menpekotasuna bultzatzearren okupatzaileak herrialdeko administrazioa suntsitu dute, oinarrizko zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, energia,…) ezin direlarik bermatu. Biztanleriak gero eta larritasun egoera handiagoa bizi du. Esaterako, emakumeen egoeran gero eta larriagoa da, jasaten duten eskubideen hondamena areagotzen ari delarik etengabe.

**www.ela-sindikatua.org**

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**

ELA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
**www.ela-sindikatua.org**